

Euskal Jai Eguna ♦ ZARAUTZ


Alproja eroen kabareta

Atzo antzean ederra eskaini zuten Alproja taldekoek Zarauzko Munoan. Urteak urtera antzean berri bat egiten dute irailaren 9an Zarauzko Euskal Jai Eguna hobeto janzteko. Aurten, Alproja taldeari esker, urtero Munoan biltzen diren Galtzagorriek *Kabaret Ero* batera eraman zituzten haien kontuak entzuzera hurbildu ziren ikusleak. Hala ere, atzo ez ziren betiko bederatzi galtzagorriak bildu Munoan. Kontalari galtzagorriaren lana bere abokatuak egin behar izan zuen, Kontalari, intsumiso izateagatik, *Busca y captura*-n jarri baitute. Horrela, urtero Munoan ipuinak azaltzen dituen kontalariak Justiziatik ihesi apopilo sartu zuten etxearen berri eman zuen eskutitzez. Kabaret batean jaso zuten Kontalari, sukaldari gisa. Eta etxe benetan bitxi horretako azken kastinaren berri eman zien entzule guztiei.

Etxe horretako seme galai maiteminduta dago Malenekin, baina sute baten ondoren, aseguru etxeko peritoak ere nahi du Malen eta Kabareteko legez kanpoko paper guztiak ateratzearekin txantajeatzen ditu etxe jabeak. Bitartean *casting* kurioso bat zuzentzen zuen Kabareteko zuzendari artistikoak...

* Sobietar abesbatza

Horrela azaldu ziren Zarauzko Munoan Sobiet Batasuneko abesbatza bat, umorista distorsionista bat, Mirror aztia eta baita bolet saltzaile astun bat ere. Gogoangarria izan zen benetan umorista distorsionistaren azken txistea: Hegazkin batean alemana, frantsesa, espainiarra, euskalduna eta hiru paraxut. Alemanak bere erreginatik egin zuen salto; espainiarrak ere salto egin zuen, baina motxilarekin. Frantsesak ere, oso gaztea zelako, salto egin zuen eta orduan... ez, gaztea beste txiste batekoa zen, baina balio du. Hala



Alprojak urtero eskaintzen duen saioak beti izaten ditu umorea eta kritika. Bi elementu hauek ez ziren falta izan atzo.

EDURNE KOCH

ere, orduan soberan dago ze... Espainiarrak motxilarekin egin zuen salto, beti bezala, baina orduan birentzat motxila bat gel-

ditzen da... 1990ean Sobiet Batasuna desagertu zenean, mundutik bira bat egiten ari zen sobietar abesbatza ere azaldu zen

Kabareteko *casting*-era, sobietar pasaportearekin inon ez dituztelako hartzen. Irungo Alardeko eskopeterak, azti aldrebes bat...

eta jaietako faunaren ezaugarrietako bat den bolet saltzaile ere azaldu zen Munoan, barre algara handiak eraginez. Baina azkenean arazoa konponduko duena bodegero-banpiro bat izango da, eta funtzioak jarraitu ahal izango du.

Alproja taldeak urtero eskaintako saioak beti du umorea eta kritika. 80 lagun inguruk parte hartu zuten atzoko saioan. Urte osoan gidoia, dekoratua, jantziak... Guztia prestatzen saio bakar baterako. Alproja taldekoek beraien Euskal Jaietako goiz berezia izaten dute, zarauztarrek urteroko Euskal Irudia izan dezaten. Urduritasuna eguna hurbil ikusi orduko hasten bada, atzo goizeko 08:00etan bildu zirenen urduritasun hori gorenean zegoen.

Dekoratuak, soinua, jantziak, makilajea, dantza, eta eszenen azken entseguak... Aurten Alproja taldearen saioak berrikuntza bat ekarri zuen: banda kozkor baten zuzeneko musika.

Beste urteetan baino aulki gutxiago zegoen Munoan eta eguzkiak ederki berotzen zituen buruak, baina jendetza handia bildu zen bertan Euskal Jai Eguneko ohitura ederretako batez gozatzeri. Eta espektakulu ederra ikusi ahal izan zuten.

Eta ikusle guztiak berriz ere txakolineria eta dantzara itzultzen ziren bitartean, Alproja taldekoek dekoratua jaso behar zuten, jantziak gorde... Guztiak lan handia eskatzen du, baina laguntasuna nagusi da taldekidetaren artean. Beren lanaren ordaina afari bat izango da hemendik gutxira, baina Zarauzko herritarren esker ona ere badute.

Ea hurrengo urtean galtzagorri guztiak biltzen diren Munoan eta beste kontakizun bitxi bat ekartzin diguten. Hori bai, azkenean argitu zen txistearen bukaera: beti bezala, espainiarrak motxilarekin egin zuen salto.

IRUNE LASA

Egunkaria k
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!!

TIP
ALEMANIERA IKASI ETA
HOBETZEKO AUKERA BIKAINA

Haur eta helduentzat
Goizez, arratsaldez eta gauzez

Matrikula zabalik,
irailaren 28ra arte

INFORMATU!
Zigordia kalea, 11-1.
Tel./Faxa: 83 56 09

✓ Udako ikastaro trinkoak
✓ Errekuperazioak
✓ Itzulpenak

don't
Zelaiondo 23 - ZARAUTZ -
83 15 78 tel.

EIRE

MAZUSTA BERRI
JATETXEA
Janari italiarra • eramateko pizzak

Allemendi, 2 (Vista Alegre) - Tf.: 13 17 77 - 20800 ZARAUTZ

azkue INMOBILIARIA
ZERBITZUAK

Salmentak eta alokairuak gestionatzen ditugu.
Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak...

URDANETA, 1 - ZARAUTZ - Tfnoa.: 83 50 00 Faxa: 83 55 08

Kalitatezko plater prestatuak

Ameztoji
anaiak

Urdaneta bidea, 9
© (943) 83 27 53
ZARAUTZ - (Gipuzkoa)

ENDIMABAL
KINKILADENDA

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 21 Tel.: 132402

20800 ZARAUTZ